



ADN BANKUA

ARGITARATZEN DU: Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Horixe Diseño

IMPRIMATZEN DU: xxx

L.G. NA 1079-2016



ADN BANKUA

-
1. ADN BANKUA ZER DEN
 2. ADN BANKUAREN HELBURUAK
 3. NORENTZAT DEN
 4. 1936KO KOLPE MILITARRAK ERAGINDAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK IDENTIFIKATZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA
 5. HARREMAN ETA ARGIBIDEETARAKO GUNEA
 6. DOKUMENTAZIOA:
 - I. BIKTIMAREN ANTE MORTEM FITXA
 - II. BAIMEN INFORMATUA, AHAIDEEI ADN ANALISIRAKO LAGINAK HARTZEKO
 - III. ZAINZA KATEARI BURUZKO AGIRIA

1. ADN BANKUA ZER DEN

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak I. tituluan ezartzen du zein diren administrazio publikoen betebeharrak desagertuen dagokienez. Bestek beste, 8. artikulua hau dio:

“ADN banku bat sortuko da, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren menpe egonen dena, non gure erkidegoan lurpetik ateratako gorpuzkien hezurren laginak kontserbatuko diren, zein bere ADN sekuentziarekin. Era berean, familian biktimaren bat izandako edozein pertsonak bere ADN sekuentziatzeko laginak har diezazkioten eskatzen ahalko du, erakunde horretan biltzen diren datuekin alderatzeko”.

Hortaz, ADN bankuak desagertuen ahaideen ADN laginak gorde, eta Nafarroako Gobernua gauzatzen ari den deshobiratze programan aurkitutako hilotzen identifikazioan lagunduko du.

ADN Bankua Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren menpean egonen da, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak kudeatuko du, eta NASERTIC enpresa publikoaren bidez garatuko da.

2. ADN BANKUAREN HELBURUAK

Irailaren 2ko 7/2016 Ebazpenaren bidez, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak ADN Bankua sortu zuen, bi xede hauek lortzeko bidean aurrerapausoak egiteko:

- Biktimen familiei eskaintzea eskura ditugun baliabide teknikoak, desagertuak aurrerantzean ere identifikatu ahal izateko, bai hobietatik atera ondoren egun identifikatu gabe daudenak, bai oraindik ireki gabe dauden hobietatik aterako ditugunak.
- Desagertuen familiei laguntza ematea, haien gertukoak aurkitu eta identifikatzeko ahal duten guztia egin izanaz ziur senti daitezen.

Azken batean, helburu nagusia da erantzuna ematea biktimen eskubideari, egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideari alegia, 1936ko kolpe militarren ondorioz erail zituzten eta oraindik desagerturik dauden pertsonak aurkitu eta identifikatzetik hasita.

3. NORENTZAT DEN

1936ko kolpe militarrek eragin zuen indarkeriaren ondorioz desagertu zirenen familien ADN laginak biltzeko sortzen da ADN Bankua. Familia horiek ADN lagin bat hartzeko eskatzen ahalko dute. Azterlan tekniko batek zehaztuko du zein den emaila egokiena familia bakoitzean, edo emaila egokiak, identifikazio prozesuan ahalik eta berme handienak izateko.

4. 1936KO KOLPE MILITARRAK ERAGINDAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK IDENTIFIKATZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Identifikazioa prozesu konplexua da: ahaideek ekartzen dituzten datuak (*ante mortem* datuak izenekoak) biktimen identifikazioaren arloko adituak diren profesionalen taldeek (medikuak, antropologoak, odontologoak...) deshobiratze programan berreskuraturako hilotzetatik eskuratzen dituzten datuekin (*post mortem* datuak) alderatzen dira.

Ahaideen laguntza oso garrantzitsua da desagertuari buruz ahalik eta datu gehien lortzeko. Horretarako, familiei galdetegi bat betetzeko eskatzen zaie, eta bertan jasotzen da gertukoaren identifikaziorako baliagarria izan daitekeen informazioa.

1936ko kolpe militarrek eragindako indarkeriaren biktimak identifikatzeko azterketen kasuan, desagertu zirenetik denbora luzea iragan dela kontuan hartuta, ezinezkoa da identifikazioetan ohikoak diren teknika batzuk erabiltzea. Halakoetan, baliagarriak izan daitezke ezaugarri pertsonalak, hortzen, pertsonaren datu fisikoen eta seinale berezien azterketari dagozkionak. Datu horiek biltzeko prozesuan, elkarrizketa pertsonalak egiten dira ahaideekin, prozeduraren berri emateko eta izan ditzaketen *ante mortem* datuak biltzeko.

Identifikazioa ez bada egin arestian deskribaturako metodoekin, edo aurreko azterketak osatzeko komenigarria denean, beharrezkoa izan daiteke ADN profilak lortzea biktimak identifikatzeko. ADN analisia emankorra izan dadin, biktimaren ahaideen laginak lortu behar dira, adituaren iritziz emaila egokienak diren ahaideengandik, hain zuzen.

Lagina hartzeko lana banaka egiten da, isipu batez (makilatxo esteril bat, muturrean material xurgatzailea duena) masaila aho barrenetik igurtziz, aho barneko zelula epitelialak biltzeko. Pertsona bakoitzeko bi isipu hartuko dira, eta berariazko baimen sinatua eskatuko da laginak hartzeko.

Ahaideek biktimak identifikatzeko aurkezten dituzten datu guztiak horretarako prestatutako orri batzuetan jasotzen dira. Datu horiek hartzeko helburu bakarra identifikazioa da, eta, betiere, datu-base pertsonaletarako konfidentzialtasun irizpideekin bat jasotzen dira, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez.

ADN laginak NASERTIC enpresa publikoaren laborategian entregatzen dira, hura arduratuko baita prozesu osoaz:

- ADN laginen kontserbazioa.
- ADN ateratzea. Laginetik ateratako ADN hotzean gordetzen da, eta 15 urte inguruko iraupena du.
- ADN sekuentziazioa. Amaierako prozesua da, eta informazioa betiko da digitalizatu ondoren.

ADN Bankua egiteko proiektu honen barnean, NASERTIC enpresa publikoak datu-base bat ere egingen du, ADN laginak eta profilak kudeatu eta kontserbatzeko.

Deshobiratze programan aurkitzen ari garena ADN Banku honetan jasotako laginekin alderatzen ahalko dugu, desagertuen identifikazioan aurrera egiteko eta, azkenean ere, erantzuna ematearren gertukoak non dauden jakin gabe luzaroan zain egon diren familiei.

5. HARREMAN ETA ARGIBIDEETARAKO GUNEA

ADN laginak hartzeko prozesuari hasiera emateko, ezinbestekoa da biktimen ahaideak harremanetan jartzea Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin. Horretarako, hau da helbidea:

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

Memoria Historikoaren Atala

Arrieta, 12-5. solairua.

Tel.: 848 42 52 96

Helbide elektronikoa: pazyconvivencia@navarra.es

6. DOKUMENTAZIOA

I. BIKTIMAREN ANTE MORTEM FITXA

II. BAIMEN INFORMATUA, AHAIDEEI ADN ANALISIRAKO LAGINAK HARTZEKO

III. ZAINZA KATEARI BURUZKO AGIRIA